Erref. kodea: LAF-220-192 [102]

Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak:

Ezezaguna [beharbada, Herria-rako]: *Barne-barneraino hunkitua ; Mende hunen hastapenean..*

# 8 BARNE BARNERAINO HUNKITUA(?)

Elizetxeko ostatuan bi gizon solasean ari hein bateko sanfretean. Bildoski laurdena han harat kraskatua, bira pinta Arteguiren "mama gozo" hartarik hustuak (goraintzi estomakari!) Holakoak zer ~~ez~~ perla baliosak etxe-altxagarriak!

Balakite bederen bere gobernu hitzaren berri. Kontrala! Berak nolako bertzeak uste halako. Etxekoen eta kanpokoen jorran ari dire, hala ez direnak asmatuz, hala direnak emendatuz, hau mendraztu, hura beltzaztu, ateraldi bakotxean hozia eremaiten dutela.

Norbeitek eginak(?) ditu konduak: emazteki baten mihiak egiten dituela urte bakotx 9 50 kilometra.

Ni segur ateraldi bitzi hori ezbela fedezko artikulua!

Dena dela, guziek gizonki ala emazte, jakin dezagun gure ~~mihi~~ mihiaren bidatzen da lagun proximoaren errespetatzen

Naski Manez dugu hasarre gorrian aldi huntan.

~~Zer~~ Zer ditake haren sabeleko mina? Laster jakinean ezarriko zaitugu

— « Errak, Yetan, ezin sinhetsia duk ene zorte madarikatua. Zakurrek jana baitute gure etxeko gostu gozo hura! Ene lan eta nekaldi guziek ufa ez paitute balio!

Gure emazte hura arrunt despendios, fluxa bilhakatu duk

Bi hilabete huntan, goiz guziez galdegiten ~~dauzkiat~~ dauzkiak mila libera. Adi bahintza haren Garrasiak, ~~ita~~ eta nigar marraskak, ikus haren sino-mino, zain bihurdikak. Auzoko zakurrak berak ihausika has-arazten baititu »

— « Gaizo Manez! badituk kexatzeko arrazoinak. Holako Mari-gizon, arrano batekin bizi behar...

Bainan zertan baliatzen du dirutzera hori? »

— « Badiika burutik Yetan?

100

Orratzak baino luzeago behar duk harrak. Orainokoan kaskoa txuxen atxikitzen diut. Hortakotz ez dakoat pilik emaiten sekulan gisa hortako etxe jale, zilhar biziari! »

# MENDE HUNEN HASTAPENEAN

Elhen hala, orai hola,
gero Jainkoak daki nola.

Atsegin berezi batekin irakurtu ditut gizon zahar baten haur denborako orhoitzapen, bereziat,

Niere laugarren herro hortarat hurbiltzen ari loriosku ezpada, tuku-tuku, deskantxu osoan.

"Aitaso kulu-mulu, zuretzat oilo zahar buru!", Azken ~~denbora~~ denbora hautan izan dut errezelu parrast~~ea~~â bat ene osasunean, bainan ustez bederen hoberat eman dut.

Noiz arte? Goazen aitzina, hel ahala hel, gure aintzinekoen ~~erran~~ erran zaharra berme:

- "Erikor dena ezta hilkor"??

∴

Huna beraz gure zahar ohituaren pergario, zirri marrak.

- "Sortua niz Anjou eskualdeko hiritxo batean. Hango etxe tarro batetako bigarren estaian. Tranpa-gain berean, bertze familia bat. Horko seme Frederik deituak hamabi urte zituen ni munduratu nintzalarik.

Zonbeit egun lehenago hasia zen zurgin egiteko aprendizgoan.

Denbora laburrik barne etorri omen zen gure sukalderat. Besapean zaukala heinbat preziatuki paketa bat azken koropiloetan naski huts-egina... Ene ait'amen eman zuen lau lorietan bere joaieria guzia erranez – « Horra ene presenta haur sortu berriarentzat. Nihaurrek egina dut nausi horri nagusiaren baimenarekin. Josta bedi horretan bihartetik harat ».

Mahastizainek baliatzen dituzte tresna gisa horiek dupa-ustaien finkatzeko. Etzen beraz haur izkita baten eskuetan ezartzekoa. Bainan zer munta zuen?

Ene ait'amek handizki goretsi zuten Frederik maitearen egitatea. Gogo onez eta federik hoberenean eskainia baitzuen bere emaitza.

Horlan da guzia!

Nundik heldu ditake ene burtzoro, zoraldien hastapen erroa?

Hemezortzi hilabete nintuen. Amak joan behar ukan zuen mandatu zonbeiten egiterat. Sukaldeko atea gakatu zuen eta ni han utzi. Beldur baitzen ene zentzu eskasean eskalerreu beheiti pirripitaka abiatuko nintzala

Itzuli zen gibelerat oren baten buruan. Hauxe da hau lastima! Sukaldea hutsa! Bere pubiko, galtzapola handik faltatu da. Norat itzali, airatu da funts hortan gure gizona?

Ordu hetan etzen Xurrubegi, pegarbegirik ~~etxetan~~, gure etxetan. Ur zikinak botatzen ziren sukaldeko leihoaren parrean kokatua zen kubeta baten medioz.

Hori izan baitzen ene makurra. Kadera bat harturik, nolaz peit igaan nintzan leihoraino eta gero kubeta haren barnean sartu.

Mletan bannuen beraz kupatoki hartarik erortzeko irriskua.

Beharrik eta beharrik ama maitea etzen oihuka hasi: Eztiki bezein amultsuki erran zautan — « Ez mugi, haur maitea »,

Eta ustegabeko tronu, errege alki hartarik atera nindu.

Orako egunean oraino bazneak, farrasta bat egiten daut hortaz orhoitzeak eta sumatzen ohazladura bat, ezin garhaituzkoa leize baten ondoan iragaitean.

Bidez - Iriche

Gure etxetik hurbil

seminario ttipira : hiru kilometra nunbeit han.

Ikastetxe hortarat igortzen ninduten aita-amek. Harat-hunatak oinez egin behar, eguardietan etxerat etorriz. Heldu baita hamabi kilometren heina egun guziez.

Hoazi zu beraz holako ibilketa baten iduriatzerat oraiko haur edo gazte zonbeiteri. Laster igorriko zaituzte antzara ferratzerat! ...

Ezin sinhetsia?

Gure herrian ordarat lau oto berribil zinituen. Eta horien jabeak medikua, notaria, arrazina eta ezko-xiri ~~saltzailea~~ saltzailea baitetaere ene aita.

Eta ausartatzen bazinen erraiterat norbeiti «zaldirik gabeko deabru mekaniko horrek» egiten ahal zituela 50 kilometra orenean, hanbat gaixto zuretzat!

Adituko zinuen hatsa gezurra zinuela edo oraino bi-hirutan behatuko zauzkun solas-lagunak, zure zentzu osoaren jabe zirenez zalantza beharrez ...

Kontu matrikula horrekin!

~~Akabatzerat doha ene terrenta.~~

Balio ote du erraitea ingurune hetan ene aita lehena izanzela eletrikaren etxean ezartzeko?

Ni segurik espantuka arizan nintzan horraz ene lagunen artean. Berri handia salhatu zioten gure apez eskol'emaileari. Liburuetan higatu jakintsuna omen zen. Baditake!

Bainan azken aurki-berri horietan, ~~ene gisa~~, aldare gibeleko alkietan ~~izentik~~ ezartzeko hobea zitaken.

Hein bat serioski erran zautan, ene lagun guzien aintzinean

—« Harritua nago nola zeiharkatu den zure aita. Dohakabea! Berak eztaki nolako ateka, bihurgune gaixtoan sartu den eletrika ezartzean zuen etxean.

Gisa guzietarat erranen diozu ene partez bera eta etxeko menbro guziak beira ditzan eletrika-baso, ~~argi-baso~~ hartarik urrun. Kontu beraz eta guardiemazue zuen onetan. Argi-baso hortan bada lanjer izigarria.

∴

Huntan akabatu zen gizon xaharraren terrenta « Denboran denborako gisa... »

« Bainan mila urteren buruan ura bere bidean badoha! » diote erran zaharrek.

# AZKEN URHATS HARTAN... BEHARTOPATU!

Norbeit zela Louis Antoine DE NOAILLES (1651-1729) deitu Pariseko kardinale artxapezpikua. Aipamen handiko izkiriant eta hizkun balendutsua zen ~~bertzeak~~ b~~ertze~~. Bertzalde ezin gehiago laïnoa eta gozoa. Urhezko bihotzaren jabe. Bera barne onekoa zelakotz ekarria zen (noizean behin soberaxko!) bertzetan ere eskualde on, goresgarrien ikusterat.

Lanarte zuelarik ibiltzen zen ospitaletan erien ikusteko eta kontsolatzeko. Bai eta ere hurbildanik konturatzea gaitz nola artatuak ziren. Beso luzeak zituen gizona zelakotz, dakizula zelazko esku larriak ezarri gabe haxean eta ozka xuxenean ezar-arazten zituela senda bideak bai eta ere erizainak eta medikuak!

Egun batez izan zen Bicêtre deitu ospitalean. Nahi ukan zituen solastatu burutik aldaratuak ziren eri dohakabeak.

Horien artean batek mun-munean hunkitu zion bihotza.

Bazen durduzatzekoa.

Huna zer erran zion bentu onean eta sendi karan. Ezin ukatuzko Xehetasunak emanez beltxak eta xuriak..."

– "Monseigneur, ontasun handien jabe nintzan. Iguzkipeko ontasunak ikus ahala urrun ~~enean~~ eneak, "grenier de la France" deitu Beauce ~~deitu~~ eskualdean.

Hortakotz ene etxekoek erhotegian sar-arazi naute paper faltsu eta hantsi-mantsi okerrenak direla medio."

Eta hasian-hasi izendatu ziozkan hulako prokuradore fikunna, halako ~~juja~~ juja filusa, piru bereko aintzineko, abokat eta mediku "barne beltz eta konzientzia gabekoak..."

Hanitxet solas guziak

uharka heldu, frogak barne, harri-
pikatuen pare lerrokatuak,
hutsalik gabe...

Aski-ta sobera
Kardinale gaixoaren tirulikatzeko.

Ezpaita harritzeko beraz
egin bazion arrapostu hau

_ « Dohakabea! izan ditazkela
holako jende tzar, basa, sorhaiorak! Ez
dakite zeren beha dauden! Heldu den
astean harrotuko ditut baztertak
eta argitaratuko horien itsuskeriák
Aste undarrean ekarriko dauzkitzut behar
dire paper-ageriak, errege-zigeluaz markatuak
Ordu berean libro, zure buruaren jabe! »

Jóko parte! izan ditakea
zorion handiagorik? Nik ez uste.

Lau lorietan eskerrak
bihurtzen ditu - eta zoin nasaiki! - gure
gizonak ongi-egileari. Huni esker ilhun
beltzetarik egun argi dohatsurat
aterako baita.

Zorigaitzez azken solasek

# BERE GISAKO BAT HORI ERE!

— « Zer diozu, Mikele? »
— « Bertzek diotena nik ere! »

Aldi huntan bederen usaiaz kanpoko gertakaria aipatuko dut. Uste ezten tokian agertzen baitire apo jauzikariak. »

Duela hiruzpalau urte, Touloneko hirian, polizerok hatxeman zuten plaia, itsas-bazterrean, gizon putruskela bat, azken piltdak dilingan, zurrungan lo zagoela, hortzez iguzkiari, lore bat ahoan.

Iratzar-arazten dute mintzo milingarik gabe eta hein bat aspreki eremaiten beren ~~buruzagien ganat~~ buruzagiaren ganat.

Hunek ere araberako begitartea ~~egitartea~~ eguten dio erranez
— « Mundik ateratzen da hi bezelako prenda baliosa. Yaperrik ez, egon tokirik ez, pilda tzarrez jauntzia eta azkenean petorik ez hire zarpan ».

Hitz horiek aditzearekin irri klaska handi bat gure bidaiant ospatsuak

– "Sosa falta balinbaduzue ene libratzeko igorrazue telefona ukaldi bat ene notariari. Holako lumeroan. Alfred dut izena. Igor dezan milun bat fitchara Touloneko hirizainen buruzagiari"

Kaskoinek dioten bezala "baléki baté", etsi-etsian eta ezbaia hortan telefonatzen dute ~~[illegible]~~ eta ukaiten ~~[illegible]~~ ezin asmatuzko arrapostua

– "Alfred hori ~~[illegible]~~ ditaken gizonik prestuena da eta aberats okitua, Normandiako etxeko jaun handienetarik bat. Baditu hiru jauregi eta iguzkipeko eremu jorienak bortz ehun ektaraz goiti. Eta dakizuela igorriko dautzuetan milionak eztuela tturrinduko horren diru kafia!"

Pentsatzen dukezun bezala – muñi - muñi horren mixteriozko podorea! – bozak eta furfuriak apaldu ziren polizero horien artean

"Huni murde, hari murde, murga duenari Musde"

Gisa guzietarat- agur eta magur- errespetu handienean galdegin zizkaten gaineratiko Xehetasunak.

— Mutil zaharra niz. Aitortzen dut ene ontasunez nardatua nindaukatela, leporaino eta izariz goiti asea. Hortakotz denak utzi ditut etXe gizon, kudeatzaile baten kontuko. Horren gain beraz sehien eta zergen pagatzea. Eman diot oraino manu zorrotza helaraz ditzan jeneroski eta nobleki laguntza guziak hari hel- hel egiten diotenari.

Nik aldiz miletan nahiago dut bizi neurez neure, libertate, larganitXa osoan, eskale- ezdeus baten itXuran.

Mundua kurritzen dut sekulako alegrantzian

Eta holaxet miresten bereziki Frantziako edergailuak: ~~hang~~ hemengo mendien arima, itsaso mugari gabekoak, oihan Xokoetako itzalgune goXoak bai eta ere ordokietako apaindurak

38

Ene zorionaren gaindia oraino
gau minean aditzen ~~duzularik~~ dutalarik
argizari xuridarat tirritaren kantu
bihotzpizgarria, entzuten argi urratzean
oilarraren kukurruku loriós, ozena,
ur lasterrak erasia goxoenean adiarazten
duen nigar kantua, joare panpalinen
tirrinda hunkigarria, arbola hostoek
haize eztietan egiten ~~duten~~ duten firfira
berezia...

Azkenean nundik
eta nola gozatuko dituzu zure
ontasunen erdian tulunpatua egoiten
bazira gaineratiko ikusgarri
paregabekoak. Hala-nola gaua
heldu delarik, zeru zabalean piztzen
diren ~~izar~~ urhezko itze ~~kopek~~ izar kopek
diamant, ikatz-harri batzuen
dirdira guziarekin

Nola prezatuko
oraino mendi-kaskoetan ~~elhur~~ elhur
zilarrostatuak, ~~bai eta~~ iguzki sartze
xoragarrienak, ogi landa, uzta
urhestatuak, pentzeak ~~na~~ margaita-liliz
estaliak, baratzeak lorez brokatuak?

Lotuko naiz beraz
ene lideari

... Etorriko den milurri hartaz
eginen duzue nahi duzuena!

Jaunak, Agur ))

# KONTSEILU ZUHURRAK

Ezbaitu erraitea beharrik, izpirituko dohain aberatsenez apaindua ditakela Errepublikako Presidenta. Mail hortarat heltzeko balentriá ederrak eginak ditazke izkiriuz eta mintzaldiez. Azkonbegitarrek dioten bezala, hitz bakotxa, hortzen artean musikatuz — « Norbeit dela jauntto hori! Brien ariña, En figura! »

Bizkitartean oro dituena sortzekoa da. Pilotari abilenek pelo ederrak egiten. Presidentak ere badu beraz kontseilu zuhur batzuen beharra.

Azken urte hautako Presidente batek ukan zituen azantaraka goresmenik bizienak. Han zagon, hedoietan gora altxatua, otso putza bezala hazia, larruak ezin atxikiko ~~atxikizko~~ fiertasunean hanpatua.

Zorionez Frantziako

burUzagi berriak bazuen haur
demboratako lagun bat, ~~adixkide~~ eta
betiko adixkide mina. Azken hau
sorgin zaharra bezain izpiritutsua zen
bai eta altzeirua bezain fina.
Aintzineko hoberik eztu hatxemanen
beraz Presidentak zinezko argitasunen
eskuratzeko.
Ukan zuen azkenean bere
adixkidearen mezu berezia.
Aldi huntan, ez toka bainan
zuka mintzo zayo gure idazlea
— « Jaun Presidenta,
Gomazu! Egun hautan
izan ditutzketzu ohore-ta-goresmenak.
Ez othoi denak sinhets.! Hamarretarik
bat, nunbeit hor! Lausengari horien
artean, ainhitzek, azpiz jorratuz,
apalduko zaituzte lehen bihurgunean.
Nik hemen igortzen
dauzkitzut hiru letra-estalgi hetsiak
Markatua den bezala lehena
zabalduko duzu bi urteren buruan;
bigarrena lau urteren buruan eta

hirugarren envelopa zure Presidentegoko azken urtean »

Iunduz-pundu, telebez-tiler adixkideak, manatu bezala egin zuen Presidentak.

Eta iraukiru, biurteren buruan, lehen mezuan —« Errak gorahi eta garbiki hire orai artinoko huts, oker, eskalapoinkeria guziak hire Presidentaintzinekoen faltaz direla etorriak »

Lau urteren buruan —« Ez lotsa, duda mudarik gabe eta kukurusta harroturik erran zak auzoko erresumak direla faltadun, bakarrak »

Azkenean hura azken argitasun premiatsu, baitezpadakoa —« ~~Hiru~~ Bi mezu hauk, molde berean, hel-arazikok dituk hire ondotik etorriko den Presidente ~~berrian~~ berriari »

# Nun nahi antzara bere mokoaz alha da

Etzen segur gizon tematsu, bihurrietarik Maurice Donnay deitu izkirianta. Bainan nola edo hola, han salto, hemen salto, odolak jauzi egiten zaukolarik, Cuidado amigo! Bazakien bere zuzenen beiratzen. Ez ote gira denak gure sudur-puntzen jabe? Edo zoin ~~oilar~~ oilar bere aldapan...

Bizkitartean aldi huntan haro handirik altxatu gabe heldu zen bere xedetarat.

Erosi zuen, Frantzia erditsu hortan, kanpâna betean, etxe bat ederra bere itzuliko baratze, sorhopila xoragarriekin. Lore arradoenak ausarkian eta pilaka metatuak.

Zer mila sorgin behar da gehiagokorik begien gozatzeko eta bihotzaren pizkolatzeko?

Zorigaitzez ~~auzoko~~ auzo baten oiloak heldu zaizkon baztar horien funditzerat eta zangopilatzerat.

Egun otoizka, biharamunean balakuz, gerotxago larderia pixka batekin egiten diozka auzoari bere arrangurak
– « Egizu bada zerbeit zure oilon zure etxeko funtsetan atxikitzeko »,

Eta beti, ~~arrapostu~~ botearen erre fera " baietz eta baietz " Bainan hari erran ala uraren gainean izkriba, berdintsu...

Orduan zer egiten du ~~liburua eg~~ izkiriant-jalantsunak? Erosten ditu hiruzpalau dotzena arroltze. Gaua etorri-ta, ilhun beltzean, arroltze horiek banazka berduratzen ditu auzoko oilok tapikatzen zituzten gune beretan.

Biharamunean, noiz eta ere oharttu baitzen auzoko emazte pertaila leihotik so zagoela, hartu zuen zare bat, kanporat aterratzen eta hantxet, kantuz eta txistuz, trufa baino musika handiago, bildu zituen bezperako arroltzeak.

Emazte hura furia gorrian sartzen da. Badoka azpien egiten ari zen gizonaren ganat

— a Bazauka Yetan! Ikusi diat anzoko gizon kheratu hori gure oilo menteks horiek utzi arroltzen biltzen ari. Nahiagoko nikean ifernuko deabru zaharra dantzan ari ikusi!..

Gizonak ere araberako haber politenak adiarazi zituen.

Eta dakizula hantik harat beren oiloak gurbilki beren etxean atxiki zituztela.

# USAIAZ KANPOKO OTOITZA

Erran daukutenaz, arras nexka plant-takoaren moldeak hartzen ditu izarra bezein pollita den Cattalinek.

Geroari buruz arrahasta handia izanen duke.

Bizkitartean ez ginuke sobera galdatu behar sei urte dituen haurttoari: ~~Izan~~ Itzal, estakuruek laster egin dezakete beren ager-aldia gutien ustean

Gisa guzietarat emaiten du bere gogo-bihotzen berri holatsu moldatua duen otoitz batean

- "Jainko maitea, emozute osagarri ona aitari eta amari. Nik nahi eskolako lehena eta ene buruko floka orotako ederrena.

Bitamina delako erremedioak ezarkitzu bixkotxen barnean eta ez dupina handiko saldaren barnean. Nolazpeit

~~hautsazu~~ hauts-azu amak egun, guziez lur-sagar saltsa izar~~[illegible]~~ hori egiten duen kasola alimalea.

Nik ere zuri emanen ene kartoinezko lapina eta punduetarik barreatua den piltzarrezko panpina »

Eta zu, irakurlea, ez othoi ~~has~~ hemendik ingiririka eta handik pleinuka ~~musiziri~~ ~~[illegible]~~ haur maite horren gaizki jujatzen.

Seguraz ere, zentzuna Jitearekin, goragodanik pikatuko du bere bihotz-altxatze bereziez, haria...

FSC
MIXTO
FSC® C001636